



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2025SUBV0009	
COD.EXP.	
EXPEDIENTEA	DIRU-LAGUNTZA
EXPEDIENTE	
TITULARRA	MAREA URDINA ELKART ANIZTASUN FUNTZIONAL
TITULAR	
NAN	G75210922
DNI	

AZKOITIKO UDALAREN ETA MAREA URDINA ELKARTEAREN

ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina, Azkoitiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean, egintza honetan Azkoitiko Udal Idazkaria den Unai Urkijo Rodriguez parte hartzen duelarik, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren, Estatuko gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena, 3.2 i) artikuluen arabera.

Bestetik, Aritz Orbegozo Etxenagusia (NAN 72452100-F), IFK G-75210922 zenbakia duen MAREA URDINA ELKARTEAREN izenean eta haren ordezkaritza, helbidea Trenbidearen Zumardia, 12,1-B 20720 Azkoitia duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta MAREA URDINA ELKARTEAK eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikuluaaren arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- MAREA URDINA ELKARTEA irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 2018ko azaroaren 18an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean AS/G/22027/2018 zenbakiaren inskribatuta dago.

III.- MAREA URDINA ELKARTE ANIZTASUN FUNTZIONAL elkarteak, Azkoitian eta bailaran Aniztasun Funtzionala duten pertsonen aldeko sentsibilizazioa bultzatzeko elkarte gisa eratu zen; eta, 2025. urtean, besteak beste, antolatu dute: Sentsibilizazio jolasak hainbat ekitaldietan (Duathloia, Ttipi-ttapa...), Marea Urdina Anaitasuna Eguna, 2025eko Marea Urdina egutegia, Herriko lasterketetan gure arkuaren erabilera (Andramari, Ikas-Kirol-Krosa, Duathloia...). 2025. Urterako konkretuki eskatzen dutena da Ikas-Jolas Ni Inklusio proiektua ikastetxeetan gauzatzeko laguntza ekonomikoa, batetik; eta, bestetik, aipatutako ekintza horiek guztiak aurrera eramateko eragindako gastuak estaltzen laguntzeko dirulaguntza.

IV.- Lankidetzat hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira MAREA URDINA ELKARTEAK jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Dirulaguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, elkarteak 2025. urtean eduki dituen gastuak estaltzen laguntzeko; eta, bereziki, III. atalean zehaztutako ekintzak garatzeko.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako dirulaguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2025. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza MAREA URDINA ELKARTEAri ematea eta emate horren baldintzak arautzea, MAREA URDINA ELKARTEAk aurkeztu duen programa/proiektua aurrera eraman dezan: Sentsibilizazio jolasak hainbat ekitaldietan (Duathloia, Ttipi-ttapa...), Marea Urdina Anaitasuna Eguna, 2025eko Marea Urdina egutegia, Herriko lasterketetan gure arkuaren erabilera (Andramari, Ikas-Kirol-Krosa, Duathloia...). 2025. Urterako konkretuki eskatzen dutena da Ikas-Jolas Ni Inklusio proiektua ikastetxeetan gauzatzeko laguntza ekonomikoa, batetik; eta, bestetik, aipatutako ekintza horiek guztiak aurrera eramateko eragindako gastuak estaltzen laguntzeko dirulaguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, MAREA URDINA ELKARTEAri BEDERATZI MILA EUROKO (9.000 euro) dirulaguntza emango dio programan/proiektuan aurreikusitako ekintzetarako, 2025eko udal aurrekontuko partida honetatik: 4000.480.230.00.04 dirulaguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, MAREA URDINA ELKARTEAk dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2025eko programa eta jardueren proiektua.
- 2025eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programa/jardueren proiektuaren arabera, MAREA URDINA ELKARTEAk honako ekintzak antolatu/aurrera eramango ditu:
 - Sentsibilizazio jolasak hainbat ekitaldietan (Duathloia, Ttipi-ttapa...).
 - Marea Urdina Anaitasuna Eguna, 2025eko Marea Urdina egutegia.
 - Herriko lasterketetan gure arkuaren erabilera (Andramari, Ikas-Kirol-Krosa, Duathloia...).
 - Ikas-Jolas Ni Inklusio proiektua ikastetxeetan gauzatzeko laguntza ekonomikoa.
 - Beste batzuk.

HIRUGARRENA: MAREA URDINA ELKARTEAk ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:



**AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.

2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:

— Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:

— Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

LAUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- a) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Gizarte Ongizate Sailari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- b) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehenetsuna emango zaio euskarari.
- c) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

BOSGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

5.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legeko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gaintitu dirulaguntzaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioren bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako dirulaguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

5.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

5.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiritik justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2025eko abenduaren 31n amaituko da dirulaguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, dirulaguntza emateko helburua bete duela zurriz eta jasotako dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2026ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- a) Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.
- b) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- c) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan froga balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Gizarte Ongizate Sailak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- d) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratuko dira, 300 €tik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin al den egiaztatuko da. Gainera, Igorle beraren Jaso izanaren egiaztagiri aztertuko dira eta PFGZren atxikipena al duten egiaztatuko da, beti ere igorlearen kopuru metatua 300 €tik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Dirulaguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko dirulaguntza zurituta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, eta MAREA URDINA ELKARTEaren gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, dirulaguntza murriztuko zaio MAREA URDINA ELKARTEari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko MAREA URDINA ELKARTEan lanean ari diren langileez eta MAREA URDINA ELKARTEA izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du MAREA URDINA ELKARTEak.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- a) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

HAMARGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajaz konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarrekin diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzeraz behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Gizarte Ongizate Saileko
Zinegotzi-delegatua
Sonia Vazquez Tejerina

Marea Urdina Elkarteko
Lehendakaria
Aritz Orbegoza Etxenagusia

Unai Urkijo Rodriguez
Udal idazkaria

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKUa5a3ebf5-7ecf-410b-9719-c7810d8c3593

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título: 2025SUBV0009-Hitzarmena/Convenio (MAREA URDINA ELKART ANIZTASUN FUNTZIO

Digitalki sinatua:



UNAI URQUIJO RODRIGUEZ
IDAZKARIA
Data: 2025/12/22 13:14:24

Aritz
Orbegozo
o

Firmado
digitalmente por
Aritz Orbegoza
Fecha: 2025.12.29
09:31:52 +01'00'

Sinatzailea 2 / Firmante 2: SONIA VAZQUEZ TEJERINA - 44141335B
Concejal
Data / Fecha: 2025/12/23 10:54:37